


DONOSTIAKO UDALA- DONOSTIA KULTURAK ANTOLATUTAKO PROGRAMAZIOA PROGRAMACIÓN ORGANIZADA POR DONOSTIA KULTURA- AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN



Babesleak
Patrocinadores:



kutxa

EL DIARIO VASCO

Europar programak
Programas europeos:

BALLET T



01/02/03
2012

Urtarrila 02-08 Enero
08. KAFKA ETA PANPINA BIDAIAIRIA / A T

Urtarrila 03 Enero
10. EZETZ HEGAN EGIN / A T
TEATRO PARAISO

Urtarrila 04 Enero
32. SCALA & KOLACNY BROTHERS/ M

Urtarrila 11 Enero
34. JOVEN ORQUESTA NACIONAL
DE ESPAÑA, JONDE / M
CLASSIC

Urtarrila 12, 13, 26 Enero
36. TOKIKO TALDEEN HAUTAKETA
SELECCIÓN DE GRUPOS LOCALES / M
47 HEINEKEN JAZZALDIA

Urtarrila 16 Enero
56. KIMUAK 2011 / Z C

Otsaila 02 Febrero
38. ROSENDO/ M

Otsaila 04 Febrero
36. TOKIKO TALDEEN HAUTAKETA
SELECCIÓN DE GRUPOS LOCALES / M
47 HEINEKEN JAZZALDIA

Otsaila 10-11 Febrero
12. DONKA / A T
TEATRO SUNIL

Otsaila 16 Febrero
24. ATALAK XIII / D
DANTZAZ KONPAINIA

Otsaila 18 Febrero
26. RUSIA / D
LA VERONAL

Otsaila 24-25 Febrero
14. EL SOMBRERO DE TRES PICOS / A T

Martxo 03-04 Marzo
16. LLAMA A UN INSPECTOR / A T
FOCUS

Martxo 07 Marzo
40. PABLO MILANÉS / M

Martxo 08 Marzo
36. TOKIKO TALDEEN HAUTAKETA
SELECCIÓN DE GRUPOS LOCALES / M
47 HEINEKEN JAZZALDIA

Martxo 09 Marzo
42. THE LAMB LIES DOWN ON
BROADWAY 2012 / M
THE MUSICAL BOX PERFORMS GENESIS

Martxo 12-15 Marzo
18. XVIII dFERIA / A T

Martxo 16 Marzo
44. DAMIEN JURADO / M

Martxo 20 Marzo
46. MIGUEL ITUARTE / M
CLASSIC

Martxo 22 Marzo
48. KLASIKAT: KEPA JUNKERA +
EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA / M

Martxo 24 Marzo
50. DOCTOR DESEO / M

Martxo 27 Marzo
20. XII DONOSTIA ANTZERKIA SARIA / A T

Martxo 30 Marzo
28. SED LUX PERMANET / D
BALLET DU GRAND THÉÂTRE
DE GENEVE

URTARRILA OTSAILA MARTXOA

ENERO
FEBRERO
MARZO

ANTZERKIA

Antzerki-programazio bete eta askotarikoa daukagu 2012rako. **Donka, Daniele Finzi Pasca** suitzar dramaturgo eta eszenografoarena (Cirque du Soleil-eko zuzendari ohia, eta 2009an hemen izan genuen *Rain* ikuskizun arrakastatsua), **Anton Txekhoven** jaiotzaren 150. urteurrena ospatzeko ikuskizuna da. Errusiako **Tchekhov Festivalak** enkargatu zien **Daniele Finzi Pasca** zuzendariari eta haren konpainiari, **Teatro Sunil** (Lugano, Suitza). Arlo klasikoan, berriz, genero horretan espezialista den konpainia bat datorkigu, **Morfeo Teatro. Pedro Antonio de Alarcónen *El sombrero de tres picos*** aurkeztuko du, XIX. mendeko lana. Bestalde, **Jose María Pouk J. B. Priestleyren *Llama a un inspector*** dakar; bera da protagonista eta zuzendari.

Martxoaren 27an, hots, **Antzerkiaren Nazioarteko Egunean, Donostia Antzerki Saria** emango zaio 2011n euskaraz helduentzat egindako ikuskizunik onenari. Horrekin batera, euskarazko antzerki-ekoizpen berria estreinatzeko konpromisoa hartzen dugu.

Txikientzat, berriz, bi proposamen oso desberdin dakartzagu: baletik, **Tantakaren *Kafka eta panpina bidaiaria***, **Franz Kafkaren** azken urtean gertaturiko zerbaitetan inspiratua; neskato batek panpina galdu zuen, eta Kafkak gutunak idatzi zizkion bidaiara joanda dagoen panpina bera balitz bezala. Bestetik, **Teatro Paraísoren *Ezetz hegan egin***, elkarrekin nahitaez konpondu behar duten lau txori arraroren alegia ederra.

Amaitzeko, **dFERIA** dugu. Kultur gertaera honek ondo irabazia du bere lekua hitzordu eszeniko garrantzitsuenen artean. Feriaren helburu nagusietako bat euskal konpainien antzerki eta dantza ikuskizunak bultzatu eta sustatzea da, besteak ahaztu gabe. Zain gaituzuel!



TEATRO



Presentamos una intensa y diversa programación de teatro para el 2012. **Donka** del dramaturgo y escenógrafo suizo **Daniele Finzi Pasca** (exdirector de Cirque du Soleil y del espectáculo *Rain* que ya estuvo con gran éxito en el 2009) es un espectáculo para celebrar el 150 aniversario del nacimiento de **Anton Chéjov**. En clásico contamos con una de las compañías especializadas en este género, **Morfeo Teatro**, que presentará **El sombrero de tres picos** de **Pedro Antonio de Alarcón** (siglo XIX). Por otra parte, **José María Pou** protagoniza y dirige **Llama a un inspector** de **J.B. Priestley**.

El 27 de marzo, **Día Internacional del Teatro**, se entregará el **Donostia Antzerki Saria**, al mejor espectáculo en euskera para adultos programado en San Sebastián el pasado año. Con ello, se adquiere el compromiso de estrenar la nueva producción de teatro en euskera.

Para las pequeñas y los pequeños de la casa presentamos dos propuestas bien distintas: por un lado, **Kafka eta panpina bidaiaria** de **Tanttaka**, que se inspira en un hecho que ocurrió en el último año de la vida de **Franz Kafka**. Una niña perdió su muñeca y Kafka le escribe cartas a la niña como si fuera la propia muñeca que se ha ido de viaje. Por otro lado, **Ezetz hegan egin** de **Teatro Paraíso**, bella fábula de cuatro pájaros raros, obligados a entenderse.

Para finalizar, tenemos **dFERIA**. Evento cultural consolidado como una de las más importantes citas escénicas. La feria tiene como uno de sus objetivos principales apoyar la promoción de los espectáculos de teatro y danza de las compañías vascas sin olvidarnos de mirar también a los demás. ¡Os esperamos!

Urtarrila Enero

02-08

KAFKA ETA PANPINA BIDAIARIA

TANTAKA TEATROA

02, 03: **12:00**

04, 05, 07, 08: **17:30**

(06: [ez dago funtziorik](#) no hay función)

9 € / CLUB



Haur eta Gazte Literaturako Espainiako Sari Nazionala, 2007

Premio Nacional de Literatura Infantil y Juvenil 2007

Tanttaka taldeak berriz ere hauren ametsetara hurbiltzen den Jordi Sierra i Fabra idazlearen liburuan oinarritutako ikuskizuna dakar. Franz Kafkak, hil baino urte bat lehenago Berlineko Steglitz parketik paseatzen zebilela, atsekabetuta negarrez ari zen neska batekin topo egin zuen: neskatoak panpina galdu zuen. *Metamorfosiaren* idazleak istorio bitxi bat asmatu zuen neskatoa lasaitzeko: panpina ez zen galdu, bidaia batetan joana zen, eta berak, panpinen postaria zenak, hurrengo egunean emango zion gutun bat zeukan neskatoarentzat. Gau hartan, Franzek lehenbiziko gutuna idatzi zuen. Eta, hiru astez, neskatoari panpina miresgarriak munduko hainbat tokitan bizitako esperientziak kontatzen zituzten gutunak idatzi zizkion.

Un espectáculo basado en el libro de Jordi Sierra i Fabra, con el que Tanttaka se acerca nuevamente al imaginario infantil. Un año antes de su muerte, Franz Kafka, paseando por el parque Steglitz en Berlín, encontró a una niña que lloraba desconsolada: había perdido su muñeca. Para calmar a la pequeña, el autor de *La metamorfosis*, se inventó una peculiar historia: la muñeca no se había perdido, se había ido de viaje, y él, convertido en cartero de muñecas, tenía una carta que le llevaría al día siguiente al parque. Aquella noche Franz escribió la primera de las muchas cartas que, durante tres semanas, entregó a la niña puntualmente, narrando las peripecias de la extraordinaria muñeca desde todos los rincones del mundo.

Urtarrila Enero

03

EZETZ HEGAN EGIN

TEATRO PARAÍSO**17:30****9 € / 7 € / 5 €**

Zikloi suntsitzaile baten hurbiltasunaren aurrean, Tourons-en tribuak – Uharte Ozeaniarreko txoriak- beste latitudeetara laster ihes egiteko premia ikusiko du. Iragarritako hondamendiari bizirauteko, ahulenak lurrean uztea beharrezkoa izango da, baldarki hegan egiten dutenak edota hegan egin ezin dutenak, alegia. Egunsentian, pertsonai gizagaixo horiek harriduraz eskutik utziak izan direla ohartuko dira, alabaina, urakanaren aurrean elkarren artean ulertzeko beharra izango dute. Ezinbestekoa izango zaie euren talentuak erabiltzea, behin horiek bateratuta, ezbeharren kontrako babeski hobereana lortuko dute.

Ante la proximidad de un devastador ciclón, la tribu de los Tourons – pájaros de las Islas Oceánicas- no tiene otra elección que escapar urgentemente hacia otras latitudes. Para sobrevivir a esta catástrofe anunciada, es necesario dejar en tierra a los más débiles, los que vuelan mal o simplemente no vuelan. Al amanecer, esos ingenuos personajes descubren con estupor que han sido abandonados a su suerte, pero frente al huracán están condenados a entenderse. Todos deberán aportar su talento, que puesto en común, será el mejor escudo contra la adversidad.



Otsaila Febrero

10, 11**DONKA****TEATRO SUNIL****20:00****30 € / 22 € / 16 €**

Zirkuaren magiak omen egiten dio Txekhov-i ikuskizun honetan, non ikuskariak, oreka finak, dantzariak, akrobatak eta malabaristak aurkitzen baititugu. *Donka* da Daniele Finzi Pascaren azken sorkaria. Koreografo horrek begiramenik handiena lortu du nazioartean, ikuskizun ahantzezinen autorea baita; besteak beste, Cirque Éloize eta Cirque du Soleil-ena.

Donka esaten zaio errusieraz arrantza egiteko kanaberan jartzen den kanpaitxoari, arrainen bat amuari tiraka hastean jo dezan. Txekhov oso arrantzazalea zen, zeregin hark gogoeta egiteko modurik onena ematen ziolako. Finzi Pasca ere arrantzan hasi da zirkuko fantasiaren itsasoan, gauzen eta gorputz zintzilikatuen poema bisual bati bizia emateko. Agertokia pizteko, nazioartean bil litekeen talderik onena bildu da: aktoreak, pailazo dekadenteak, musikariak, dantzariak eta akrobatak; eta beherago, Maria Bonzanigoren musika, aretoan estalki bat bezala hedatuz, Errusia umunera garamatzala.





La magia del circo rinde tributo a Chéjov en un espectáculo de visiones, delicados equilibrios, bailarines, acróbatas y malabaristas. *Donka* es la última creación de Daniele Finzi Pasca, una figura que cuenta con el máximo reconocimiento de la escena internacional y autor de espectáculos inolvidables con el Cirque Éloize y el Cirque du Soleil.

Donka es el nombre que recibe en ruso la pequeña campana que se coloca en la caña de pescar y que suena cuando un pez pica. Chéjov era un gran amante de la pesca por ser una actividad que le permitía abandonarse a la meditación. Finzi Pasca se lanza a la pesca en el mar de la fantasía del circo para dar vida a un poema visual de objetos y cuerpos en suspensión. La animación del escenario corre a cargo del mejor reparto de actores internacionales, payasos decadentes, músicos, bailarines y acróbatas, mientras que más abajo, la música de Maria Bonzanigo se extiende por la sala como un manto, trasladándonos a la lejana Rusia.

Otsaila Febrero

24, 25

EL SOMBRERO DE TRES PICOS

MORFEO TEATRO

20:00

22 € / 16 € / 10 €



XIX. mendearen hasieran, Andaluziako benta batean: Lucas osaba berrogei urtetik gorako errotaria da, tximua baino itsusiagoa, Frasquita eder-ederrarekin ezkondua. Don Eugenio de Zuñiga korrejidore andrezaleak emakume errotariaren faboreekin amets egiten du, baina hark jai-jai. Korrejidoreak tranpa bat asmatzen du Lucas bentatik urruntzeko, baina han denean, ustekabean, uretara erortzen da, eta arropak erantzi eta ohean sartu beharra gertatzen zaio. Emakume errotaria senarrari abisu ematera doan bitartean, hura itzuli eta korrejidorea aurkitzen du bere ohean. Adarrak jarri dizkiolakoan, korrejidorearen arropak hartu eta haren emaztea limurtuz mendeku hartzea pentsatzen du. Jakiten dutenean, Frasquita eta korrejidorea errotariaren mendeku gaiztoa galaraztera abiatzen dira.

Principios del siglo XIX, en una venta andaluza: el tío Lucas es un molinero cuarentón, más feo que picio, casado con la bellísima Frasquita. El libidinoso corregidor Don Eugenio de Zúñiga ansía los favores de la molinera, que ésta se niega a concederle. El corregidor idea una estratagema para alejar al tío Lucas de la venta, pero una vez allí el azar le hace caer al canal de agua y se ve obligado a despojarse de sus ropas y a guardar cama. En lo que la molinera va a avisar a su marido regresa el molinero y descubre que el corregidor está en su lecho, pensando que ha sido burlado arrebatándole sus ropas con el objeto de vengarse intentando seducir a la esposa de éste. Cuando se enteran, Frasquita y el corregidor se lanzan a impedir la maquiavélica venganza del molinero.



Martxoa Marzo

03, 04

LLAMA A UN INSPECTOR

FOCUS**20:00****22 € / 16 € / 10 €**

Polizia-inspektore bat etorri da Birling familiaren etxera, afalorduan. Sheilak senargaia hartu duela ari dira ospatzen, eta inspektorea afaltiarrek neska baten suizidioan nahastuta ote dauden ikertzen hasten da. Antzerki-lana ezin miresgarriago josita dago, bilbeak erloju baten zehaztasunez egiten du aurrera.

Suspensearen erabilera trebeak, hala ere, ez dio itzal egiten gizartean ondorio sakonak dituen mezuari: denok gara gorputz bereko atalak, eta denok dugu beste guztiei gertatzen zaienaren erantzukizuna.

Un inspector de policía se presenta en el domicilio de la familia Birling, interrumpe la cena con la que celebran que Sheila se ha prometido e indaga en la implicación de los comensales en el suicidio de una chica. La obra, un prodigio de construcción formal, despliega una trama que progresa como un aparato de relojería.

El uso habilísimo del suspense no eclipsa en ningún caso un mensaje de profunda repercusión social: todos formamos parte del mismo organismo y somos plenamente responsables de todo lo que le pasa al resto del mundo.

Martxoa Marzo

12-15

XVIII

dFERIA

Donostiako XVIII. Arte Eszenikoen Feria, dFERIA2012, martxoaren 12a eta 15a bitartean izango da. Aurreko urteetan bezala, hiriko eszenatoki ezberdinetan edizio berri honen emanaldiak ikusteko aukera izango da.

La XVIII edición de la Feria de Artes Escénicas de Donostia-San Sebastián, dFERIA2012, tendrá lugar entre el 12 y 15 de marzo. Al igual que en años anteriores, los escenarios donostiarras acogerán durante esos días las funciones de la nueva edición.

18.



FERIA

Martxoan Marzo

27


XII DONOSTIA ANTZERKIA SARIA

20:00

Gonbidapenarekin Con invitación

Urtero, martxoaren 27an Antzerkiaren Nazioarteko Eguna dela eta, Donostia Antzerki Saria ematen zaio aurreko urtean hirian euskaraz antzeztutako obra onenari, eta halaxe egingo da aurten ere. Saria eman ondoren, obra saritua antzeztuko da.

Todos los años, en torno al 27 de marzo, Día Internacional del Teatro, se concede el Premio Donostia de Teatro a la mejor obra en euskera representada en la ciudad el año anterior. Tras la entrega del premio, se representará la obra ganadora.



DANTZA

Victoria Eugenia Antzokiak **La Veronalen Rusia**rekin irekiko du hiruhilekoa. Obraren hizkuntza koreografikoak dantza klasikoaren distortsio bat du abiapuntu, antzerkiaren eta zine mutuaren osagai batzuekin nahastuta, betiere gorputz-oinari sendoa duela, non teknikaz egiten den irakurketa berriak gaur egungo eszenaren azken kezketara hurbilarazten baititu ikusleak. **Rusia** hamar laneko sail batekoa da; lan bakoitzak herrialde edo hiri bat du gortaleku, eta, hartara, analogia bat sortzen da dantzaren eta topografiaren artean.

Martxoaren amaiera aldera izango dugu geure artean **Ginebrako Antzoki Nagusiko Balleta**. Ballet hori 1962an sortu zen, eta arreta berezia eskaini die XX. mendeko dantza-korronteet: Balanchine, Baryshnikov, Nureyev, Kyllian, Forsythe... Oraingo zuzendaria **Phillipe Cohen** da. Prestakuntza klasikoko 22 dantzari zuzentzen ditu, denak ere koreografia neoklasiko edo garaikideak dantzatzeko gai direnak. **Sed Lux Permantet** aurkeztuko dute.

Victoria Eugenia Antzokiko Club Aretoak antzerkira modu intimogean iristeko bidea emango digu. **Dantzazeko** saioek jarraipena izango dute **Dantzaklub** egitasmoan, non **Atalaken XIII.** hitzordua aurkeztuko baita.

DANZA

El Teatro Victoria Eugenia abre el trimestre con **Rusia** de **La Veronal**. Su lenguaje coreográfico parte de una distorsión de la danza clásica que se cruza con elementos del teatro y del cine mudo, siempre sin olvidarse de una sólida base corporal donde la nueva lectura que se hace de la técnica sirve para acercarse a las preocupaciones actuales de la escena contemporánea. **Rusia** pertenece a un decálogo de diez obras donde cada una de ellas se enmarca en un país o ciudad del mundo, creándose una analogía entre danza y topografía.

Al final de marzo contaremos con el **Ballet del Gran Teatro de Ginebra**. El ballet se fundó de 1962 y ha dedicado especial atención a las corrientes de danza más importantes del siglo XX: Balanchine, Baryshnikov, Nureyev, Kyllian, Forsythe... Su director actual es **Phillipe Cohen**, que dirige a 22 bailarines de formación clásica capacitados para interpretar también coreografías neoclásicas o contemporáneas. Presentan **Sed Lux Permanet**.

La Sala Club del Teatro Victoria Eugenia nos permitirá acercarnos de una manera más íntima a la danza. Seguiremos contando con las sesiones de **Dantzaz**, en el proyecto **Dantzaklub** que nos presentará su cita **Atalak** número XIII.

Otsaila Febrero

16**ATALAK XIII****DANTZAZ KONPAINIA****21:00 / CLUB****6 €**

Dantzaz Konpainiak koreografo gisa agertzeko aukera ematen die bere dantzarietara eta gonbidatutako gipuzkoar artistei; bosgarren denboraldia du horretan oraingo hau. Etorbizuneko sortzaileen talentu berritzailea lehen aldiz ezagutzeko abagunea, beraz.

Quinta temporada donde Dantzaz Konpainia ofrece a sus bailarines, y también a artistas guipuzcoanos invitados, la oportunidad de exhibirse como coreógrafos en la Sala Club del Victoria Eugenia. Una ocasión para descubrir, antes de todos, el talento innovador de los creadores del futuro.





DANZA
A ESCENA



de Danzas,
Auditorios,
Circuitos y
Festivales



Ministerio de Cultura
Basque Country
Basque Country
Basque Country

Otsaila Febrero

18**RUSIA****LA VERONAL****20:00****22 € / 16 € / 10€**

Baikal aintzira, Siberiaren hegoaldean, planeta osoan den aintzirarik sakonena da. Hainbeste ur du, non, lurrazal gainera isuriko bagenu, mundu osoa hogei zentimetroko ur-geruza batez estalita geratuko bailitzateke. Handik lau mila kilometrora, Tula izeneko hirian, Europa aldeko Errusiaren erdialdean, bikote bat, Andrei eta Nina, inoiz egin duten bidaiarik luzeena egitekotan dira: Tulatik helmugatzat aukeratu duten lekuraino, Baikal aintziraraino.

Baina *Rusiak* bi historia kontatzen ditu. Biak gertatzen dira denbora eta espazio berean. Ibilbideak elkarren ondoan doaz, elkar ukituz, bereiziz, gainezarriz eta urrunduz. Ikusleak hautatzen du, unean-unean, non jarri arreta.

El lago Baikal, situado en la región sur de Siberia, es el lago más profundo del planeta. Su volumen de aguas es tal que si lo derramáramos en la superficie terrestre, ésta quedaría cubierta por una capa de veinte centímetros de altura. A cuatro mil kilómetros de allí, en la ciudad de Tula, en el centro de la Rusia europea, una pareja, Andrei y Nina, se preparan para emprender el viaje más largo de sus vidas, el que recorrerá la distancia que separa Tula, del lugar elegido como destino, el lago Baikal.

Rusia cuenta en realidad dos historias. Las dos historias comparten tiempo y espacio, sus recorridos son inherentes, se tocan y se separan, se superponen y se alejan. Es el espectador quien escoge en cuál fijar su atención en cada momento.

Martxoan Marzot

30

SED LUX PERMANET

BALLET DU GRAND THÉÂTRE DE GENÈVE

20:00

30 € / 22 € / 16 €



Sed Lux Permanet bi koreografiaz osatua dago: *Transit Umbra / La Nuit Transfigurée* eta *Sed Lux Permanet / Requiem*. Lehenean Francesco Ventrigliak bere erara kontatzen du benetazko maitasuna lortzeko, itzala uzteko eta gaua eraldatzeko, beldurrak, larritasunak eta atsekabeak gainditzen dituzten emakume eta gizon baten istorioa.

Bestalde, *Sed Lux Permanet / Requiem*, Ken Ossola koreografoarena, bizitzaren eta heriotzaren arteko elkarrizketa da, argiaren eta iluntasunaren artekoa. Bizitza eta argitasuna gailendu egiten dira, eta sosegua horizontera eta argitasunera eramango gaitu, ezaxola utziko ez gaituen musikari esker.

Sed Lux Permanet está compuesto por dos coreografías: *Transit Umbra / La Nuit Transfigurée* y *Sed Lux Permanet / Requiem*. En la primera, el coreógrafo Francesco Ventriglia cuenta, a su manera, la historia de una mujer y de un hombre que superan sus miedos, sus angustias y sus aflicciones para conseguir un amor verdadero, dejar la sombra y transformar la noche.

Por su parte, *Sed Lux Permanet / Requiem*, del coreógrafo Ken Ossola, es un diálogo entre la vida y la muerte, entre la luz y la oscuridad. La vida y la luz triunfan para llevarnos a un horizonte de serenidad y claridad, gracias a la música que no nos deja estar indiferentes.

MUSIKA

Urteko lehen hiruhilekoan Victoria Eugenia Antzokian izango den musika-programazioak proposamen askotariko eta kalitate handikoak dakartzkigu. Nabarmentzekoak dira 2012 honetako **Classic** Zikloko lehen kontzertuak, **Asociación de Cultura Musical de San Sebastián** elkarte izen handikoak sustatuak. Maila berezia lortzen dute, halaber, **Heineken Jazzaldiak** urtero antolatzen dituen kontzertuek, hemengo jazz talde interesgarrienetako batzuk entzuteko aukera emanez, 47. edizioan parte hartzeari begira.

Rosendo edo **Damien Jurado** bezalako rock eta pop-eko izen handien emanaldiak dira programazioaren beste ale larri batzuk; baita, nola ez, **Pablo Milanés** kubatar kantautorea gure agertokira igotzea ere.

Honezkero, **Kepa Junkera** ere legenda bihurtua da ia; **Euskadiko Orkestra Sinfonikoak** inguraturik jardungo du bakarlari **KlasikAT** zikloko kontzertu batean.

Aurreko guztiarekin batera, egitasmo berritzaile bat: **Scala & Kolacny Brothers**, pop kanten bertsio erakargarriekin; rock sinfonikoaren garaiko ikuskizun handietako bat berriturik: **The Lamb Lies Down On Broadway**, zeinaren bitartez **The Musical Box** taldeak omen egiten baitio Genesis-i. Azkenik, euskal pop-ean proiektiorik handiena duen taldeetako bat: **Doctor Deseo**.

MÚSICA

La programación musical del primer trimestre del año en el Teatro Victoria Eugenia presenta un conjunto de propuestas variadas y de gran calidad. Entre ellas habría que destacar los primeros conciertos del Ciclo **Classic** en este 2012, promovidos por la prestigiosa **Asociación de Cultura Musical de San Sebastián**. Especial relieve adquieren también, cada año, los conciertos con los que el **Heineken Jazzaldia** ofrece la posibilidad de escuchar a algunos de los más interesantes grupos locales de jazz con vistas a su inclusión en la 47ª edición del certamen.

La actuación de leyendas del rock y del pop como **Rosendo** o **Damien Jurado** son otros de los puntos fuertes de la programación, así como la presencia en nuestro escenario del gran cantautor cubano **Pablo Milanés**.

A estas alturas, **Kepa Junkera** es, también, una leyenda; la **Orquesta Sinfónica de Euskadi** lo incorpora como solista en un concierto de su ciclo **KlasikAT**.

Junto a todo lo anterior, un proyecto innovador: **Scala & Kolacny Brothers**, con sus atractivas versiones de temas pop; la recreación de uno de los grandes espectáculos de la era del rock sinfónico: **The Lamb Lies Down On Broadway**, por medio del cual el grupo **The Musical Box** homenajea a Genesis; y, finalmente, uno de los grupos pop vascos de mayor proyección: **Doctor Deseo**.

Urtarrila Enero

04

SCALA & KOLACNY BROTHERS

20:00

24 € / 20 € / 18 €

Kolaboratzailea En colaboración con:

**MUSIC
2DAY** >

delfuego

Steven Kolacny (pianoa piano)

Stijn Kolacny (zuzendaria director)

Scala Choir (emakumez osatutako abesbatza coro femenino)

La red social filmak eman zuen ezagutzera Scala & Kolacny Brothers proiektu musikal paregabea. Steven eta Stijn anaiak eta Scalak (20-30 emakumezko ahotsek osatutako abesbatza) sortutako indie-rock taldea da hau. Stevenek pianoa jotzen du, eta Stjinek abesbatza zuzendu. Pelikula horretarako Radiohead-en *Creep* kantarekin egin zuten bertsioak bat-bateko sona eman zien. Nirvana, Oasis, U2, Kings of Leon, Foofighters eta rock modernoaren beste ikono ezagunen kanteekin egin dituzten interpretazioak oso berritzaileak eta harrigarriak dira.



La película *La red social* sacó a la luz al proyecto musical único de Scala & Kolacny Brothers, un grupo indie-rock compuesto por los dos hermanos Kolacny, Steven y Stjin, y Scala, un coro de entre 20 y 30 voces femeninas. Steven toca el piano y Stjin dirige el coro. La versión del *Creep* de Radiohead que hicieron para esa película les dio una fama instantánea. Sus interpretaciones de temas de Nirvana, Oasis, U2, Kings of Leon, Foofighters y otros iconos del rock moderno son innovadoras y muy impresionantes.

Urtarrila Enero

11

JONDE

20:00

25 € / 18 € / 12 €

CLASSIC

Kolaboratzailea En colaboración con:

Asociación de Cultura Musical de San Sebastián


Joven Orquesta Nacional de España

Alejandro Posada (zuzendaria director)



Babeslea Patrocina:

Fundación **BBVA**





Espainiako Gazte Orkestra Nazionala (JONDE) 1983an sortu zen, musikari espainiarren formazioan laguntzeko euren lanbidea garatzen hasi aurreko garaian. Bere kalitateari esker, Europako kontzertu areto nagusienetan egon da eta bakarlari handiekin aritu da, hala nola, Mstislav Rostropovich, Rafael Orozco, Christian Zacharias, John Williams, Teresa Berganza eta María Bayo. JONDEk Revueltasen, Dukasen eta Respighiren obrak interpretatuko ditu Alejandro Posadaren batutapean, zeinak Sarajevoko orkestra, Gaztela Leóngo eta Colombiako Orkestra Nazionala (bere sorteria) zuzendu dituen.

La Joven Orquesta Nacional de España (JONDE) fue creada en 1983 con el propósito de contribuir a la formación de músicos españoles en la etapa previa al ejercicio de su profesión. Su calidad le ha llevado a actuar en las principales salas de conciertos europeas y a colaborar con solistas de la talla de Mstislav Rostropovich, Rafael Orozco, Christian Zacharias, John Williams, Teresa Berganza y María Bayo. Bajo la batuta de Alejandro Posada, que ha dirigido las orquestas de Sarajevo, Castilla y León y la Nacional de Colombia, su país natal, la JONDE interpreta un programa con obras de Revueltas, Dukas y Respighi.

Urtarrila Enero

12, 13, 26

Otsaila Febrero

04

Martxoak Marzo

08

TOKIKO TALDEEN HAUTAKETA SELECCIÓN DE GRUPOS LOCALES

47 HEINEKEN JAZZALDIA

20:00 / CLUB

Doan Gratis

47. Heineken Jazzaldiak bertako 10 jazz talde hartuko ditu bere programazioan, 2012ko uztailean, horiek hautespen-prozesu baten bitartez aukeratu eta gero. Aurkezten diren guztien artetik 15 hautatuko dira eta jendaurrean joko dute, Heineken Jazzaldiko Antolakuntza Batzordeak programan sartuko diren hamarrak aukera ditzan. Horietatik, bostek Victoria Eugeniako Club Aretoan jardungo dute, eta besteek Altxerrin eta Forum FNACen.



El 47 Heineken Jazzaldia incluirá 10 grupos locales de jazz en su programación de julio de 2012 elegidos mediante un proceso de selección. De todos los presentados, son preseleccionados 15 que actuarán ante el público para que el Comité Organizador del Heineken Jazzaldia escoja a los 10 incluidos finalmente en el programa. De ellos, cinco lo harán en la Sala Club del Victoria Eugenia, y el resto en Altxerri y Forum Fnac.

Otsaila Febrero

02

ROSENDO

20:00

30 € / 28 € / 25 €

Kolaboratzailea En colaboración con:

get [★] in



Rosendo Mercado

(ahotsa, guitarra
voz, guitarra)

Rafael J. Vegas

(baxua bajo)

Mariano Montero

(bateria batería)

Rosendo, oraindik ere, rock espainiar gogor eta kontzesiorik gabekoaren sinbolo da, konpromisozko letra kritiko eta soinu sendoko rockarena. Carabancheleko maisuak, 30 urte baino gehiagoko ibilbidearen ondoren, oraindik asko dauka esateko bere ahots karismatikoarekin. *A veces cuesta llegar al estribillo* diskoa bira honen ardatza da, eta 2011ko Premios de la Música-n saridun izan zen Album Onenaren eta Rock Album Onenaren sailetan.

Rosendo sigue siendo el símbolo del rock español duro y sin concesiones, el rock del sonido contundente y las letras críticas y comprometidas. El maestro de Carabanchel, después de más de treinta años de carrera, tiene todavía mucho que decir con su voz carismática. *A veces cuesta llegar al estribillo*, el disco que forma el núcleo de esta gira, ganó los Premios de la Música 2011 en las categorías de Mejor Álbum y Mejor Álbum Rock.

Martxo Marzo

07

PABLO MILANÉS: PROPOSICIONES

20:00

42 € / 35 € / 28 €

Nueva Trova Cubana delakoaren zutabeetako bat izateaz gainera, nazioartean proiektzio handienetakoa duen musikaria da Pablo Milanés, bere hitzen poesiari eta abestien leuntasun melodikoari esker. Gazteleraz idatzi diren amodio kanta politenetako batzuk sortu ditu, eta edertasunak bere errezitaldiak blaitzen jarraitzen ditu. Latino-amerikako herri musikaren ordezkari garrantzitsua dugu Pablo. Andrés Suárez izango du artista gonbidatu.

Además de ser uno de los pilares de la Nueva Trova Cubana, Pablo Milanés se ha convertido en uno de los músicos de más proyección internacional, gracias a la poesía de sus letras y a la suavidad melódica de sus canciones. Ha compuesto algunas de las más hermosas canciones de amor en español y la belleza sigue impregnando todos sus recitales. Milanés es una de las figuras más representativas de la música popular latinoamericana. Andrés Suárez actuará como artista invitado.

40.

Pablo Milanés

(gitarra, ahotsa guitarra, voz)

Dagoberto González

(teklatuak, biolina teclados, violín)

Miguel Núñez

(pianoa, musika-zuzendaritza
piano, dirección musical)

Kolaboratzailea En colaboración con:



Martxoaren 09

09

THE MUSICAL BOX PERFORMS GENESIS - THE LAMB LIES DOWN ON BROADWAY 2012

20:00

50 € / 45 € / 40 €

Kolaboratzailea En colaboración con:




Denis Gagne (ahotsa voz)

Sebastien Lamothe (baxua bajo)

Francois Gagnon (gitarra guitarra)

Marc Laflame (bateria batería)

Michel Coutier (teklatuak teclados)





Genesis taldeko jatorrizko kideek babestua, rockaren munduan inoiz egin den ikuskizun ikusgarrienetako baten berreraikitze zehatz eta leiala da hau: *The Lamb Lies Down on Broadway*. Horrekin Peter Gabriel buru zuen taldeak oihartzun handiko arrakasta lortu zuen 70. hamarkadan. The Musical Box talde kanadiarrak bira historiko hartako alderdi guztiak zehaztasun handiz berregin ditu, soinutik hasi eta eszenaratzeraino.

Reconstrucción rigurosa y fiel, avalada por los miembros originales de Genesis, de uno de los shows más impresionantes del rock de todos los tiempos: *The Lamb Lies Down on Broadway*, con el que la banda liderada por Peter Gabriel cosechó un éxito resonante en los 70. El grupo canadiense The Musical Box reproduce con exactitud todos los aspectos de aquella gira histórica, desde el sonido hasta la puesta en escena.

Martxo Marzo**16**

DAMIEN JURADO


20:00**18 €**

Kolaboratzailea En colaboración con:



Damien Juradok bere estiloa Seattle-n garatu du, Estatu Batuetan musikaz gehien dakien hirietako batean. Hor artista laudatua da folk-rock independentearen eremuan, eta bera bezalako kantautoreei esker estilo horrek goraldia izan du. Bira honetan bere disko berria aurkeztuko du, *Maraqopa*, bere aurreko disko arrakastatsua bide beretik doana, *Saint Bartlett*. Pausoz pauso, karrankarik gabeko 15 urteko ibilbideak orain dagoen gailurreraino eramán du.

Damien Jurado ha desarrollado su estilo en Seattle, una de las ciudades de Estados Unidos que más saben de música. Allí es un artista de culto en el terreno del folk-rock independiente, que experimenta un nuevo auge gracias a cantautores como él. Presenta en esta gira su recién publicado disco, *Maraqopa*, que sigue la senda triunfadora abierta por el anterior, *Saint Bartlett*. Quince años de trayectoria paso a paso, sin estridencias, le han llevado hasta la cima en la que se encuentra ahora.



Damien Jurado (ahotsa, gitarra akustikoa voz, guitarra acústica)
Barry Uhl (teklatuak teclados)
Bradley Stemke (bateria batería)
Jessiah Hurlburt (baxua bajo)
Kyle Zantos (gitarra guitarra)



Martxoa Marzo

20**MIGUEL ITUARTE****PIANO PIANO****20:00****15 € / 12 € / 10 €****CLASSIC**

Kolaboratzailea En colaboración con:

Asociación de Cultura Musical de San Sebastián

Miguel Ituarte piano-jotzaile euskaldunak (Getxo) eskari ugari izaten ditu hala bakarkako errezitaletarako, nola orkestra garrantzitsuenetan laguntzaile moduan jarduteko; horien artean daude Amsterdameko Concertgebouweko Ganbara Orkestra, Londreseko Royal Philharmonic Orkestra, Lisboako Gulbenkian eta, Espainia eta Hego Ameriketako beste hainbat. 2000ko urtarrilean Bartzelonako Auditori-an Grandes Pianistas zikloa ireki zuen Isaac Albénizen *Iberia*rekin. Musikeneko irakasle da bere sorreratik, 2001n.

El pianista vasco Miguel Ituarte, nacido en Getxo, es uno de los más solicitados para recitales en solitario y como acompañante de importantes orquestas, entre las que se incluyen la de Cámara del Concertgebouw de Amsterdam, Royal Philharmonic de Londres, Gulbenkian de Lisboa y numerosas de España y Sudamérica. En enero de 2000 abrió el primer Ciclo de Grandes Pianistas del Auditori de Barcelona con *Iberia* de Isaac Albéniz. Es profesor de piano en Musikene desde su creación en 2001.

Martxoa Marzo

22

KLASIKAT: KEPA JUNKERA + EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA

20:00**15 €**

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak KlasikAT ekimenaren kontzertu-sorta berri bat dakar. Egitasmo honekin orkestrak bere musika-eskaintza publiko anitzei zabaltzea du helburu. Iaz, Michel Camiloren latindar jazz onenak eta Swing Gaua-k marraztu zuten jada KlasikAT zikloaren izaera. Edizio berri honetan Euskadiko Orkestra Sinfonikoak eta Kepa Junkerak trikitilari bilbotarraren erritmo ezagunenetan zehar ibilbide sinfonikoa burutuko dute.

La Orquesta Sinfónica de Euskadi presenta una nueva edición de KlasikAT, una iniciativa con la que pretende ampliar su oferta musical a otros públicos. El año pasado, el mejor jazz latino en las manos del pianista Michel Camilo y una Noche de Swing perfilaron ya la personalidad del ciclo KlasikAT. En esta nueva entrega, la Orquesta Sinfónica de Euskadi y Kepa Junkera trazarán un recorrido sinfónico a través de algunos de los ritmos más conocidos del trikitilari bilbaíno.

Enrique Ugarte (zuzendaria director)
Kepa Junkera (trikitxa)
Euskadiko Orkestra Sinfonikoa
Orquesta Sinfónica de Euskadi

Antolatzailea Organiza:



EUSKADIKO
ORKESTRA

klasikaAT





Martxoa Marzo

24

DOCTOR DESEO

20:00

23 € / 18 €

Kolaboratzailea En colaboración con:

**Francis**

(ahotsa, gitarra voz, guitarra)

Josi (baxua, koroak bajo, coros)**Txampi**

(bateria, perkusioa)

batería, percusión)

Raúl (teklatuak teclados)**Toro**

(gitarra, koroak guitarra, coros)

María (koroak coros)**Joe** (saxoa saxos)**Agus** (biola viola)

Al amanecer... seguir soñando da Doctor Deseok dakarkigun lan berriaren izenburu iradokitzailea, talde bilbotarraren hamairugarrena. Agertokietara lagunarteko formatu magiko eta berritzailean iritsiko da, eta horrekin, aurrez ezarritako moldeak hautsiko ditu beste behin ere. Antzoki enblematikoenetatik pasako den bira eskusibo baterako *ad hoc* sortutako diskoa da.

Al amanecer... seguir soñando es el sugerente título del nuevo trabajo de Doctor Deseo, el decimotercero de la banda bilbaína. Llega a los escenarios en un formato íntimo, mágico e innovador, que vuelve a romper los moldes establecidos. Se trata de un disco creado *ad hoc* para una exclusiva gira, que viajará por los teatros más emblemáticos.

LASTER PRÓXIMAMENTE:

Maiatza **03** Mayo

KRYSTIAN ZIMERMAN

20:00 / CLASSIC

Maiatza **09** Mayo

DEVA PREMAL Y MITEN

20:00

Maiatza **22** Mayo

KARRYN ALLYSON

20:00

Ekaina **01** Junio

TANGO DE LEY:


ARIEL ARDIT Y SU ORQUESTA TÍPICA

20:00

Ekaina **02** Junio

KING'S SINGER

20:00 / CLASSIC



KRYSTIAN ZIMERMAN



KARRYN ALLYSON



KING'S SINGER

ZINEMA CINE



Urtarrila Enero

16

KIMUAK 2011

Urteko film labur onenen hautaketa, euren zuzendariak aurkezturik.

Selección de los mejores cortometrajes vascos del año, presentados por algunos de sus realizadores.

20:00**4 €****Bucle**

Aritz Moreno

La calma

David González

La casa del lago

Galder Gaztelu-Urrutia

Coptos

Alvaro Sau

Lagun mina

José Mari Goenaga

La media pena



Sergio Barrejón

Muy cerca



Iván Caso

She's Lost Control



Haritz Zubillaga

Zeinek gehiago irauten



Gregorio Muro

Kolaboratzailea
En colaboración con:
Euskadiko
Filmategia

GUNEAK ZONAS



1. GUNEA: Beheko Jarlekuak, Platea, Palkoa eta Balkoiko aurrealdea

ZONA 1:

Patio de butacas,
Platea,
Palco y
Delantera de Balcón



2. GUNEA: Balkoia eta Mailadiko aurrealdea


ZONA 2:

Balcón y
1ª Delantera de Anfiteatro



3. GUNEA: Mailadia

ZONA 3:
Anfiteatro



AGERTOKIA ESCENARIO

DESKONTUAK DESCUENTOS

SOCIOS
DONOSTIA KULTURA
BAZKIDEAK



Donostia
Kultura
Bazkideak



Kutxa
Donostia
Kultura

10 %
Donostia Kulturak
antolatutako **ikuskizun**
guztietan

En **todos los**
espectáculos
organizados por
Donostia Kultura

10 %
Jaialdietan En los festivales
Jaialdi bakoitzeko baldintzak www.donostiakultura.com webgunean ikusi
Ver condiciones de cada festival en la web www.donostiakultura.com

dFERIA
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

ORDU GAZTEA HORA JOVEN




+ Info: Victoria Eugenia Antzokiko eta Antzoki Zaharreko leihatiletan.

+ Info: En las taquillas del Teatro Victoria Eugenia y Teatro Principal.

SARREREN SALMENTA VENTA DE ENTRADAS

VICTORIA EUGENIAKO LEIHATILA
TAQUILLA DEL VICTORIA EUGENIA
Tel. 943 481 818 • 11:30 -13:30 / 17:00 -20:00

ANTZOKI ZAHARREKO LEIHATILA
TAQUILLA TEATRO PRINCIPAL
Tel. 943 481 970 • 11:30 -13:30 / 17:00 -20:00

KUTXAREN BIDEZ
CANALES KUTXA
 **QUIOSCOS INTERNET KIOSKOAK**
 **TELEKUTXA (943 001 200)**
 **WWW.KUTXASARRERAK.NET**

KULTURA ZURE ESKU CULTURA MUY A MANO

DK BAZKIDE, KUTXA DK txartelak

Tarjetas SOCIO DK, KUTXA DK

%10 eko deskontua ikuskizunetan

10% de descuento en los espectáculos

TEL. 943 481 161

